# Janamari Malharini omenaldia. Itsasun (2004-IX-25)

Roger GAMOY

**Malharin andereari omenaldia**

Itsasuko herriari ohore zaio gaur Janamari Malharin-en omenez hemen bildua den jendaldeari ongi-etorria egitea.

Alabaina, *Mademoiselle Malharin* (hemen denek deitzen ginuen bezala) izan da nortasun handiko emazte bat. Herriko pertsonaia bat zen, pertsona enblematikoa. Halakoa zen ere Mugerren, nere sort-herrian, nun atsegin handiz ezagutu nuen lehen aldikotz.

1967an jin zen Itsasura, San Josepe eskola pribatuko erakasle gisa. Urte baten buruan, eskolaren giderrak hartu zituen, zuzendari gisa. Eta gogotik lan egin zuen hor, berak sinesten zuenari leial.

Malharin andereak beretik eman du eta lan egin du eten gabe. Itsasuar askok dute bere izpirituaren idekiduraz eta bere engaiamen-duetaz baliatu, dela irakaskuntzan, dela parropiaren bizian, halaber kultura mailan...

Eskolako alkitik Elizako alkietara, Gaztetxeko gelatik Euskal Irra-tien emankizunetara, itsasuar bakotxak atxikitzen du andere Malha-rin-etaz oroitzapen hunkigarri eta indartsu bat, hain da aintzindari agertu asko mailetan.

Jendeak behar litaizke omendu bizi direno, ez da hala izan Itsasun andere Malharin-entzat. Milesker beraz gaurko ekitaldi hunen antolatzaileeri, zueri esker gure herriak urrats beharrezko hori bete-tzen baitu gaur.

Bigarren gauza (bi gogoeta egin behar eta) kirola. Zertako ez baliatu gehiago errealitate horretaz? Izanikan ere ikusgarri-industria bilakatu kirola. Aipa dezagun joan den larunbatean Miarritze Agilerako zelaian gertatua: jokolarien izenak euskaraz, jokoaren harat-hunatak euskaraz. Kirola ere, misio-lur. Behar bada, hemen dagoen ilexuridun zuhurtziaz beteriko jende onak ez ditu gorputz ariketa horiek gustukokak, xahartzeari buruz arimaren aroa lasterka datorrelarik. Baina gazteak nola hunkitu? Artetik erraiteko, Azkaindar gazte batek idatzi digu polizial eleberri bat, agian laster agertuko zaiguna. Eta guk, Euskaltzaleek, irakurriko dugu. Bazkal ondoan, afal ondoan, edo biharamunean!